



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUEGOAREN HORNITZEKO LEHEN MAILAKO SAREKO INSTALAZIOAK USTIATZEKO ETA KONTSERBATZEKO LANETARAKO MEKANISMOEN ETA MATERIALEN HORNIDURA

3. DOKUMENTUA

PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1. XEDEA

Kontratuaren xedea hau da: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Hornikuntza Ustiapeneko Zuzendariordetzaren Sareen eta Presen Arloak kudeatutako instalazioak ustiatzeko eta kontserbatzeko lanetarako mekanismoak eta materialak hornitzea.

2. DESKRIBAPEN OROKORRA

BBUPen instalazio ugariak ustiatzeko eta kontserbatzeko lanek askotariko mekanismo eta materialen hornidura behar dute.

BBUP-EN HORNIKUNTZAKO LEHEN MAILAKO SAREKO INSTALAZIOAK USTIATZEKO ETA KONTSERBATZEKO LANETARAKO MEKANISMOEN ETA MATERIALEN HORNIDURA kontratatzea gomendagarria era horretako hornidurak ahalik eta kondiziorik tekniko eta ekonomiko onenetan eskuratzeko.

Mekanismoak hornitu behar dira honako jarduera hauek direla eta:

- 1) Prebentorio, Elezkano eta Altamirako deposituen ontzia bereiztea, haietan mekanismo batzuk ordeztu eta beste batzuk bikoiztu beharra baitago.
- 2) Bypassa egitea ontzi bakarra duten deposituetan (Munitis, Altamira, Axpe-Bollegi, Elantxobe, San Antolin, Gane, Aldapa, Ajangiz, Besangiz eta Trama).
- 3) Instalazioen prestazioak hobetzea: Zenbait instalazio kritikoren prestazio zehatzak hobetzen dituzten mekanismo modernoak hornitzea (Etxebarriko ponpaketaren hargune-obrako uhateak).
- 4) Presak erregulatzeko elementuak berritzea (Zollo, Artiba, Oiola, Nocedal eta San Andres).
- 5) Asmo orokorreko ustiapen/kontserbazioko beharrak eta matxurak direla eta, programatik kanpo, mekanismoak birjartzea eta berriak jartzea.

Sareen eta Presen Arloko zerbitzu-kontratuen bidez exekutututako kontserbazio-lan orokorrak egiteko, haietan jaso gabeko askotariko materialak zuzkitu behar dira (iturgintza, burdineria, obra zibila eta abar). Biltegiko horniduren barruan sartzen dira.

Era horretako hornidura, mekanismo eta materialen barruan askotariko artikulua daude; horrez gain, denboran etengabe aldatzen dira, eta ezinezkoa da guztiak zerrenda zehatz eta mugatu batean adieraztea kontrata daitezkeen. Hori horrela, egokitzat jotzen da kontratua oinarritzea fabrikatzaileek argitaratzen dituzten tarifetan (eranskin gisa atxiki dira).



3. IRISMENA

3.1 HORNITU BEHARREKO ARTIKULUAK

Mekanismoak eta materialak zenbait sortatan elkartzen dira haien izaeraren eta ezaugarrien arabera:

- 1. SORTA: MEKANISMOEN HORNIDURA
- 2. SORTA: MATERIAL-HORNIDURAREN BILTEGIA (ITURGINTZA, BURDINERIA, OBRA ZIBILA)

Sorta bakoitza zenbait familiatan banatzen da, eta haietako bakoitzaren barruan zenbait marka daude, erabilera arruntekoak eta prestigio aitortutakoak, bai eta dauden elementuen osagai izanik BBUPen historikoki erabili izan direnak ere. Gainera, «bestelako markak» marka ere jasoko da, merkatuan dauden marka guztiak barne hartzeko.

Hornitu beharreko kopuruak ez daude aldez aurretik zehaztuta loteetan, baina zenbatespena dago programei lotutako mekanismoei dagokienez; halere, zenbatespenak ez du BBUP lotzen, jardueren garapenak erabakiko baitu. Artikuluak (mekanismoak eta materialak) beharren arabera eskatuko dira; hala bada, BBUPek ez du konpromisorik hartzen hornitu beharreko markari eta kopuruari dagokienez.



3.1.1 MEKANISMOEN HORNIDURA

FAMILIA	KOD.	MARKA
EMARIA ERREGULATZEKO BALBULA TRIFUNTZIONALAK eragingailu elektrikoarekin edo halakorik gabe (Auma edo Bernard)	VRT-01	BERMAD
	VRT-02	IRUA
	VRT-03	BESTELAKO MARKAK
EMARIA ERREGULATZEKO BALBULA ANULARRAK eragingailu elektrikoarekin edo halakorik gabe (Auma edo Bernard)	VRA-01	IRUA
	VRA-02	BELGICAST(ERHARD)
	VRA-03	KBA
	VRA-04	BESTELAKO MARKAK
ZORROTADA BARNEHUTSEKO BALBULA erreduktorearekin edo gabe eta eragingailu elektrikoarekin edo halakorik gabe (Auma edo Bernard)	VCH-01	HOWELL
	VCH-02	BESTELAKO MARKAK
PRESIOA KONTROLATZEKO BALBULAK, ERAGINGAILU HIDRAULIKOKOAK EDO ZUZENEKOAK (PRESIO-ERREDUKTOREAK, PRESIO-EUSLEAK, GAINEZKATZE AZKARREKOA ETA ABAR)	VCP-01	IRUA
	VCP-02	BERMAD
	VCP-03	HAWLE
	VCP-04	KBA
	VCP-05	BELGICAST
	VCP-06	UJP
	VCP-07	BESTELAKO MARKAK
TXIMELETA-BALBULA BIKOITZ ESZENTRIKOA erreduktorearekin eta eragingailu elektrikoarekin edo halakorik gabe (Auma edo Bernard)	VMD-01	BELGICAST (ERHARD)
	VMD-02	HAWLE
	VMD-03	KBA
	VMD-04	UJP
	VMD-05	KSB
	VMD-06	BESTELAKO MARKAK
TXIMELETA-BALBULA ZENTROKIDEAK eragingailu elektrikoarekin edo halakorik gabe (Auma edo Bernard)	VMC-01	BELGICAST
	VMC-02	KBA
	VMC-03	UJP
	VMC-04	KSB (AMVI)
	VMC-05	BESTELAKO MARKAK
UHATE-GILTZAK eragingailu elektrikoarekin edo halakorik gabe (Auma edo Bernard)	VAC-01	BELGICAST
	VAC-02	HAWLE
	VAC-03	KBA
	VAC-04	UJP
	VAC-05	KSB
	VAC-06	BESTELAKO MARKAK
UHATEAK erreduktorearekin eta eragingailu elektrikoarekin edo halakorik gabe (Auma edo Bernard)	CMP-01	ORBINOX
	CMP-02	KBA
	CMP-03	BIDAPRO



	CMP-04	BESTELAKO MARKAK
BENTOSA TRIFUNTZIONALA ETA ADUKTOREAK	VEN-01	IRUA
	VEN-02	BERMAD
	VEN-03	HAWLE
	VEN-04	KBA
	VEN-05	UJP
	VEN-06	BESTELAKO MARKAK
DESMUNTATZEKO KARRETEA	CAD-01	USILA
	CAD-02	POLANCO
	CAD-03	VICAM
	CAD-04	BESTELAKO MARKAK
ERREDUKTOREAK ETA ERAGINGAILU ELEKTRIKOAK	RYA-01	AUMA
	RYA-02	BERNARD
	RYA-03	BESTELAKO MARKAK
ASKOTARIKO MEKANISMOAK	CON-01	BELGICAST(ERHARD)
	CON-02	HAWLE
	CON-03	KBA
	CON-04	UJP
	CON-05	KSB
	CON-06	IRUA
	CON-07	BERMAD
	CON-08	AUMA
	CON-09	BESTELAKO MARKAK

3.1.2 MATERIALAK HORNITZEKO BILTEGIA (ITURGINTZA, BURDINERIA ETA OBRA ZIBILA)

FAMILIA	KOD.	MARKA
TORLEJUAK, TXORROTAK/ERRAKORERIA ETA FINKATZE MEKANIKOA	TRF-01	DAMESA
	TRF-02	FISHER
	TRF-03	LEGRIS
	TRF-04	ROSMIL
	TRF-05	BESTELAKO MARKAK
JUNTURAK	JUN-01	JAMES WALKER
	JUN-02	BESMA
	JUN-03	BESTELAKO MARKAK
HODIAK ETA OSAGARRIAK	TUB-01	UJP
	TUB-02	BUDERUS
	TUB-03	ELECTROSTEEL
	TUB-04	FERTOR
	TUB-05	MASA
	TUB-06	JINDAL



ITXITURAK	TUB-07	BESTELAKO MARKAK
	CER-01	HERCULES
	CER-02	BESTELAKO MARKAK
SARETAK ETA ERREGISTROAK	RYR-01	BRIO
	RYR-02	NORINCO IBERICA
	RYR-03	COFUNCO
	RYR-04	BESTELAKO MARKAK
HORMIGOIZKO ARREFABRIKATUAK	PDH-01	CEPREF
	PDH-02	BUPRE
	PDH-03	ALBERDI
	PDH-04	ARENZANA
	PDH-05	BESTELAKO MARKAK
MORTEROAK ETA PRODUKTU KIMIKOAK	MPQ-01	SIKA
	MPQ-02	LANKO
	MPQ-03	HEMPEL
	MPQ-04	KRAFFT
	MPQ-05	ARDEX
	MPQ-06	HUMISTOP
	MPQ-07	COLFLEX/MULTITEK
	MPQ-08	BESTELAKO MARKAK

3.2 GARRAIOA

Hornidura-kontratuaren prezioetan sartuta daude materiala adostutako entrega-puntura (INCOTERMS 2010 arauaren arabera DDPa) garraiatzearekin lotutako kontzeptuengatik gastu guztiak.

3.3 DOKUMENTAZIOA

3.3.1 DOKUMENTAZIO PARTIKULARRA

Materialak, BBUPen irizpidearen arabera, eta mekanismoak kasu guztietan, dokumentazio honekin batera emango dira:

- Kalitate-ziurtagiriak (erabilitako materialak, saiakuntzak, CE marka eta abar)
- Planoak
- Muntatzeko jarraibideak
- Mantentze-lanen eskuliburua
- Materialen adostasun-agiria kontsumitzeko urarekiko kontaktuan 3/2023 Errege Dekretuarekin bat etorritako eta/edo «Edateko uretarako egokia» marka-ziurtagiria 2024/371 EBren arabera.

Dokumentazioa formatu digitalean egongo da; planoak Autocad (dwg) formatuan egongo dira, eta dokumentazio idatzia, Office-Word, Access formatuan, irakurtzeko, inprimatzeko edo idazteko inolako murrizketarik gabe. Gainera, inprimatutako bi (2) kopia emango dira.

4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK



Kontratistaren antolamendu-egiturak behar beste baliabide izango ditu kontratua behar bezala kudeatzeko (giza baliabideak eta baliabide materialak), eta BBUPi lanak egiaztatzen eta emaitzak kontrolatzen laguntzeko.

5. KONTRATUAREN KONDIZIO OROKORRAK

Kontratua agiri honetan adierazitako kondizioak betez egingo da, kontratistaren erantzukizunpean.

Kontratistak kontratuaren xede diren jarduera guztietan aplikatu beharreko legeria, erregelamenduak eta legezko araudia bete beharko ditu, baita BBUPek ezarritako prozedurak ere.

Jarduteko moduari buruzko edozein zalantza izanez gero, kontratistak kontratu-zuzendaritzara joko du, informazioa biltzeko.

5.1 KONTRATUAREN HASIERA ETA AMAIERA

Erabat debekatuta dago BBUPeko instalazioetan inolako jarduerarik hastea Kontratuaren Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.

Kontratuaren indarraldia igarotakoan amaituko da kontratua.

5.2 PROZEDURAK

5.2.1 ENTREGAK

Artikuluak kontratuaren indarraldian emango dira, eskatu ahala.

Entrega bakoitzean, emate-agiri bat erantsiko da, eta, bertan, honako hauek zehaztuko dira: hornitutako produktuak, haien kopuruak, entregaren ardura hartzen duenaren izen-abizenak, etab.

5.2.2 ENTREGATZEKO EPEA

Artikulu guztiak emateko gehieneko epea artikuluen araberakoa izango da:

1. SORTA: Mekanismoen hornidura.

- DN150eko edo txikiagoko diametroa duten mekanismoei dagokienez, emateko gehieneko epea 24 ordukoa izango da, materiala eskatzen denetik aurrera (materiala apalean).
- DN200 eta DN300 arteko diametroa (biak barne) duten mekanismoei dagokienez, emateko gehieneko epea astebetekoa izango da, materiala eskatzen denetik aurrera.
- DN200 eta DN300 arteko diametroa (biak barne) duten mekanismoei dagokienez, emateko gehieneko epea lau (4) astekoa izango da, materiala eskatzen denetik aurrera.
- DN600etik gorako diametroa duten mekanismoei dagokienez, emateko gehieneko epea hamabi (12) astekoa izango da, materiala eskatzen denetik aurrera.



Hornitu beharreko artikuluren bat emateko epe handiagoa badu, adjudikaziodunak horren berri eman beharko du proposamenean.

Adjudikaziodunak arestian aipatutako epeak ezin dituela bete adierazten dituen artikuluek (familia), guztira, sortako guztien % 15 baino gutxiago izan beharko dira, kondizio-agiriko familia bakoitzeko haztaperen-ehunekoaren banaketaren arabera.

LOTE2: Materialak hornitzeko biltegia (iturgintza, burdineria, obra zibila)

- Torlojuak, txorrotak-errakoreria, finkatzeko elementuak, junturak (EPDMo BNR), hodiak eta osagarriak (DN200era arte), ereduak kutxeta aurrefabrikatuak, saretak eta erabilera arrunteko materiala, emateko gehieneko epea 24 ordukoa izango da materiala eskatzen denetik. (materiala apalean)
- Gainerako materialei dagokienez, emateko gehieneko epea astebetekoa izango da, materiala eskatzen denetik aurrera.

Hornitu beharreko artikuluren bat emateko epe handiagoa badu, adjudikaziodunak horren berri eman beharko du proposamenean.

Adjudikaziodunak arestian aipatutako epeak ezin dituela bete adierazten dituen artikuluek (familia), guztira, sortako guztien % 10 baino gutxiago izan beharko dira, kondizio-agiriko familia bakoitzeko haztaperen-ehunekoaren banaketaren arabera.

5.2.3 ENTREGA-PUNTUA

Kontratistak artikuluek BBUPen irizpideari jarraikiz eman beharko ditu, adjudikaziodunaren lokalean bertan, Beteluriko EUTan (Arrigorriaga), Arloko Ustiapen Zerbitzuetan (Bizkaian) edo zehaztutako beste edozein tokitan, betiere BBUPen jarduketa-esparruaren barruan.

Emateko tokia adjudikaziodunari jakinaraziko zaio eskaerak egiteko unean.

5.2.4 EKIPAMENDUAK ETA/EDO MATERIALAK JASOTZEA

Artikulu guztien harrera administratiboa egingo da entregatzeko tokietara iristean.

Artikuluak behar diren zehaztapenak betetzen ez badituzte eta entregatzean akatsak badituzte, itzuli egingo dira. Adjudikaziodunak bere ardurapean kendu beharko ditu, inolako ordainik jaso gabe.

5.3 KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA

Kontratu-zuzendaritza kontratu-arduradun baten esku egongo da (BBUPeko plantillako ingeniaria). Arduradun horrek teknikari arduradun baten laguntza (BBUPeko langilea) eta/edo kanpoko laguntza teknikoak izango ditu. Langile hori arduratuko da kontratua betetzeko zuzendaritza-, jarraipen- eta kontrol-lanez.

Kontratuaren Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen kontrol-neurriak ezarri ahal izango ditu kontratuaren kondizioak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko, eta egindako horniduren maila teknikoak egiaztatzeak egokitzen dituen ausazko ikuskarpen guztiak egingo ditu.



Hilero, egindako entregei dagozkion emate-agirien ZERREDA ZENBATETSI bat egingo du kontratista adjudikaziodunak, lan-aginduaren (LA) arabera, eta zerrenda hori izango da geroago ziurtagiri bat egiteko oinarria. Zerrenda hori paperean eta telematikoki (urrunetik) beteko da, BBUPen asmo horretarako datu-basearen erregistroak betez. Administrazio-datuak adjudikaziodunaren kontura izango dira, eta ez dira ordainduko.

Kontratuaren Zuzendaritzak hornidurei buruzko informazioa eskatzeko eskubidea izango du, paperean eta digitalki, eta informazio hori datu-basean erantsiko du (hau da, ziurtagiriak, eskuliburuak, fitxa teknikoak, segurtasun-fitxa eta abar), eta beti eta kasu guztietan, mekanismoak hornitzeko (1. SORTA), kontratistak datu-baseko lan-aginduaren erregistrora mekanismoaren gaineko informazio hau erantsi beharko du:

- CE adostasun-agiriak
- Ekipamenduaren zehaztapen teknikoak
- Erabiltzaile-eskuliburua
- Instalatze- eta mantentze-lanen eskuliburua
- CADeko piezakatze-planoa
- Bestelako ziurtagiriak, halakorik badago.

5.4 KALITATEA ZIURTATZEA

Lizitatzailerak bere erakundeak kontratuaren kondizioak betetzeko gaitasuna duela ziurtatuko du.

Gaitasun hori ISO 9001 2008 ziurtagiriarekin edo goragoko beste batekin bermatuko da.

Ziurtagiririk izan ezean, BBUPek egokitzen jotzen dituen kontrolak onartuko ditu lizitatzailerak, eta haien kostua bere gain hartuko du.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

5.5 ZIGORRAK

Zigor hauek ezartzen dira:

- 1) Behar den denboran eta moduan eta kontratuz ezarritako epeen barruan hornitu gabeko eta adjudikaziodunak hitzartutako mekanismo eta materialei (5.2.2 puntua) % 5eko beherapena gehituko zaie adjudikaziodunak eskaintako beherapenari berari.
- 2) Baldin eta kondizio-agirian jasotako hornitzaileen katalogoko mekanismo edo material bat ez bada hornitzen 6 hilabeteko baino laburragoko epean justifikatutako kausarik ezean, kontratuaren adjudikazioko zenbatekoaren % 4ko zigorra aplikatuko da ziurtagirian.

5.6 ZIURTAGIRIAK

Hilero emango da egindako horniduren ziurtagiria, aurkeztutako materialei dagozkien albaranen ZERREDA BALORATUAN oinarrituta, eta zigorren arabera zuzenduta, halakorik badago.

Ziurtagiri partzialak behin-behinekoak baino ez dira izango, eta ez dakarte haien barruan jasotako artikulak onartzea.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

Ur Hornidura Ustiatzeko Zuzendariordetza
Subdirección de Explotación Abastecimiento

6. KONTRATUAREN BERARIAZKO KONDIZIOAK

EZ DAGOKIO

Beteluri, 2025eko otsaila

OSKAR REDONDO ETXEBARRIA
TGM Coordinador de Área de Explotación
de Red Primaria de Abastecimiento y Presas
*Lehen Mailako Hornidura Sarearen eta Presen
Ustiapeneko EMT Koordinatzailea*